

# “Peremustae” teonimoaren inguruan. Euskaratik irakurtzeko saioa

JOSE VICENTE HUARTE LERGA\*

*A Caja Pamplona, Iruñeko Kutxa,  
en el 125 aniversario de su fundación.  
A su Director don Manuel López Merino,  
en agradecimiento a su callado y constante apoyo.*

Eslabako “Don José” izeneko etxeke beitian, olio-lakuko putzua egiterakoan erromatar garaieko “ara” ageri zen. Maluquer de Motes-ek “Zephyrus” aldizkarian 1.955 urtean berria eman zuen. Ez zen izan, dirudienez, dermio-  
tik ekarria, beitik lurpekoan zegoen betidanik. Oraingo egunean “ara” hau Castillo-Huarte-en etxeke eskaratzean ikus daiteke.

“Ara”-ren aurpegi nagusian honako testu hau irakurtzen da:

PEREMUSTAE DEO  
MAGNO ARACA  
MARCELLA PRO  
SALUTE SUA ET SU  
ORUM V S L M (Zephyrus 1.955 )

Araca Marcellak eskeinitako “ara” Peremusta jainko handiari bere eta bere familiaren osasunarengatik.

Teonimo honi buruz hona hemen Zephyrus aldizkarian emandako eritzia:

“Parece conjugarse en el nombre divino dos elementos distintos: un elemento Pere- aparece en el nombre personal Perecatus o Perecaius..”

Eta orain J.M. Blazquez, aintzinako erlijioetako espezialistarik handienetarik baten hitzak:

“En la formación del nombre del dios entran dos elementos diversos. El elemento -pere se documenta frecuentemente en onomástica, como en Perecatus;

\* Euskal Filologian lizentziaduna.

el segundo elemento también aparece en nombres de personas...Parece ser un compuesto, cuyo segundo elemento sería un tema verbal.

Estos compuestos aparecen en el indoeuropeo más antiguo que se conoce. Es un dios de la naturaleza, como es propio de formas arcaicas de la religión indoeuropea, divinidad de las alturas, con su morada en montes altos”.

(Blazquez, Diccionario)

Eman dezagun PEREMUSTAE forma teonimo baten forma dela, lehen deklinazioaren datiboa hain zuzen. Datibo honek PEREMUST-A nominatibora garamatza. Eta orain ba gaude benetako teonimoaren aurrean, saio honen abiapuntua.

Eman dezagun berriz aipatutako ikertzailekin PEREMUSTA sintagma komposatu bat dela. Hori finkatuz gero ondorengo zatiketa normala gerta daiteke euskaraz:

#### PEREMUST-A

Azkeneko zatitik abiapuntua hartuz -A hori euskal determinantea dela pentsa daiteke.

Goazen orain PEREMUST zati nagusia arakatzera, beste zatiketa bat eginez, PERE-, -M- eta -UST- bereizteko.

#### PERE-M-UST

Lehen zatiarentzat proposatzen dugun oraingo euskaratikako irakurketa BERE,BEHERE da, adlatibotik erakarrirako sustantiboa hain zuzen, Iparraldeko tradizioan oso izen arrunta dena. Oraingo hizkuntzan, fonologia sinkronikoaren aldetik, oztoporik ez bada irakurketa hori egiteko (**Pe**, **petik**, **petiko**, **pekoz gain** eta beste zenbait kasutan egiten dugun bezala), fonologia diakronikoaren ikuspututik problemarik larrienak aurkezten dira, ondorengoan ikusiko dugunez.

Hitzeko hasieran herskari ahostuna da orain arte estudiantutako mailegu eta hitz zahar gehienetan agertzen dena. Honek Gavel

“Il ne semble pas qu’aucun mot d’une grande ancienneté en basque ait pu, en principe, échapper a la loi de sonorisation des explosives sourdes initiales”.

esatera darama (Gavel, Eléments). Baita Michelenak ere:

“En préstamos es característico que las oclusivas sordas latinas iniciales estén representadas por sonoras vascas. Como en esta posición los mismos sonidos vascos representan además a las oclusivas sonoras latinas, esto equivale a decir que en estas voces se ha neutralizado para estas consonantes la oposición sorda/sonora en inicial de palabra. La situación no es muy distinta por lo que respecta al léxico prelatino” (Michelena, Fonética)

eta gero

“..en fecha antigua el vasc. no debía poseer /p/, es decir, una oclusiva labial fuerte” (Michelena, Fonética)

eta laster hartzen dugu kontutan maisuen aburua ez dela “ex nihilo” eraiki.

Oztopoa gainditzeko 2 bide dugu:

1. Aintzinako epigrafia arakatzuz ikus daiteke txistukarien ondoan ozenak gortzen direla:

fano heraus CORRITSE (gorri)  
 andoxPONNI, beste textu batean BONSilexsi ((h)on)

(Michelena, Textos).

Hori dela eta pentsa daiteke DEUS BEREMUSTA (deusperemusta eba-  
 kia) aposizioaren erabilera iraunkorrek fosiliza izan dezakela bigarren ele-  
 mentuaren hasierako kontsonantearen soinua, Pere- egiteko eta idazteko, ba-  
 tez ere gure izkuntza egiten ez bazuen “ara” grabatu zuenak.

2. Ba liteke garai goiztar horretan iadanik Be, Behe eta Behere atzizkiak be-  
 zala erabiliak izan gehienetan -pe, -pere bezala, eta handik hasierako gorta-  
 suna hedatu izan edozein posiziotara (Michelena, Fonética)

Esanahiaren aldetik “inferi”, ‘beheko eremua’ izango litzateke edukia.

Barneko -M- baztertuko dugu oraingoz eta -UST- multzoa arakatuko du-  
 gu ondorengoan.

Jakina denez, -st- multzoa, Hego-Mendebaleko tradiziokoa,


-rtz- multzoa da Ipar-Ekialdeko tradizioan. -UST-ek -URTZ-/URTZIra  
 eramaten gaitu zuzen, Aymery Picaud-en URCIARA. URTZI eta OSTRI eza-  
 gutzen ditugu gure mitologian (Barandiaran, Diccionario), konposaketan az-  
 keneko -i gabe beti agertzen zaizkigunak: ORTZ-adar, ORTZ-egun, OST-  
 ots, UST-rauku. Finka dezagun identitatea

OST/OSTRI : UST

ORTZ/ORTZI : URTZ,URTZI,URCIA

Eta fonologiatik problemarik ez bada ikusten, semantika aldetik “deus”,  
 ‘jainko’ izango zen edukia, Erdi Aroko erromes ospetsuari jarraituz.

Morfosintaxiaren aldetik ikertutako sintagma edozein ikaslek araka deza-  
 ke oraingo joskerako liburu batez baliatuz.



Esanahiaren aldetik honela finka daiteke:”Inferorum deus”, ‘Beheko Jain-  
 koa’. Zer esanik ez, ez gabiltzala bat Peremusta natura eta goiko jauna egiten  
 dutenekin.

Zer egin, berriz, bazterrean utzi dugun barneko -M-horrekin? /M/-ri bu-  
 ruz Michelenak:

“..nos inclinamos a creer, a causa de ciertas dificultades, que es dudosa la  
 existencia de /M/ en el antiguo sistema vasco”.

Michelenaren aburutik abiatuz(Michelena, Fonética), eman dezagun -M-  
 hori bigarren mailako emaitza dela. Hala bada -B-ren orde z dagoela (Miche-  
 lena, Fonética)pentsa al daiteke?

-MUST- <\*-BUST- ?

Ba ditugu euskaraz **musti** eta **busti** partizipioak urarekin zer ikusia dutenak, eta agian baita euri, zero eta OST-UST-ekin ere, aipatutako zeruko fenomenoek bezala?.

Hori dela eta oraingoz, beste datu hobeen zain geratzen garen bitartean, ondorengo zatiketa proposatuko genuke:

PERE-MUST-A.

Oraingo Euskararen egoeran, azken mendekoetan batipat, BERE/BEHERE sustantiboaren tradizioa Ipar-Ekialdekoa da, -ST- multzoarena, berriaz, Hego-Mendebalekoa. Hala ere ez dugu uste alde honetatik problema handirik aurkezten zaigunik, ez baitakigu PEREMUSTAren sorleku zehatza zein den, ezta erromatar garaieko euskararen egoera diatopikoa.

Euskal determinante oso aintzinasun handiko elementua dela esan daiteke, proposatutako irakurketaren arabera.

Gure ulerkuntza ontzat emanez zenbait ondorio atera dezakegu linguistikaren alboan:

“Pro salute sua et suorum” eskeintzen dio “ara” Araca Marcellak Peremusta handiari. Datu honek gure irakurketa egiazta dezake, osasunaren eskaerak beheko jainkoei maizkoak baitziren orduko erlijioetan, erlijio misterikoetan batez ere: Ataecina, Serapis etab. beheko jainkoak ziren eta osasuna haiei eskatzen zitzairen maiz. Patuaren ahala beheko jainkoek bakarrik urra baitzezaketen (Varios, Historia)

12garren mendean oraindik arbasoek jainkoari ematen zioten izena UR-CIA zen, Aimery Picaudek dioenez. Noiz, non eta nondik ageri eta impositu zen JAUNGOIKOA jainkoaren izentzat? PEREMUSTA eta JAUNGOIKOA erkatuz gero haien pareko eta antonimotasuna garbi agertzen zaizkigu. Honek JAUNGOIKOA forma aldetik, erdi-arokoa bada, edukiaren aldetik oso izen edo atributo zaharra izan daitekela esatera eramaten gaitu.

Gure arbasoak jainkobakardunak zirela aditu eta irakurri dugu behin baino gehiagotan (Wölfel, Las religiones). Hala bazen jainko bakar horrek goiko eta beheko jauna izan beharko luke. Baina JAUNGOIKOA/PEREMUSTAren antonimotasuna bistan izanez bi jainko ezberdin izan zitekela bururatzeko zaigu. Zilegi litzaiguke PEREMUSTA/\*GOIKOMUSTA-\*GORAMUSTA edo antzeko batean pentsatzea?

Bi baino jainko gehiago bazen, kristautasunaren eraginez batek besteak gaintu zituen, baita aintzinako izena uxatu ere, zein konposaketetan goiko, zeruko fenomenoak azaltzeko geratu baitzen: **ostots**, **ustrauku**, **ortzadar**, **ihurtziri** etab.

“Peremustae deo magno” eskeintzen dio gure Arakak. Inperioko probintziak gaintuzko eta gobernatzeko Erromak erabilitako lokarriak laxatuz doazen bitartean, guztiz hilik ez zegoen bertako erlijioa bizkor agertzen da berriaz. Ataecina, Endovellico eta beste jainko askok orduko “arak” betetzen dituzte (Varios, Historia).

Zein mendetakoia izan daiteke gure “ara”? Edozein kasutan IIIgarren mendeko anarkiari aurrekoa izan beharko du. Marko Aurelio eta anarkiaren artekoa ote? (Varios, Historia). Idazkera ona iruditu zaigu.

Beste kasu askotan bezala emakume da “ara” honetan eskeintzen duena (Varios, Historia).

Estudiatu dugun “ara” eta elizako atariaren aurreko zimitorioan ageritako

harrizko karatula Eslaba aintzinasun handiko herria dela esatera behartzen gaituzte. Izena bera eta dermioan zehar sakabanatuak aurkezten zaizkigun aurreerromatar kulturako ehortziak aintzinasun horren aztarnak lirateke.

## BIBLIOGRAFÍA

- AZKUE, R.M. *Diccionario vasco español francés*. La Gran Enciclopedia vasca. Bilbo. 1969ko berargitarapena.
- BARANDIARAN, M.J. *Diccionario ilustrado de Mitología Vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo. 1972
- BLAZQUEZ, J.M. *Diccionario de las religiones prerromanas de Hispania*. Istmo. Madrid 1975
- GAVEL, H. *Eléments de Phonétique Basque*. RIEV. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo. 1969ko berargitara pena.
- MICHELENA, L. *Textos arcaicos vascos*. Minotauro. Madrid 1964
- MICHELENA, L. *Fonética histórica vasca*. Seminario Julio de Urquijo. Donostia. 1985
- MICHELENA, L. *Diccionario general vasco. Orotariko euskal hiztegia*. Euskaltzaindia. Bilbo. 1987
- VARIOS. *Historia de España*. Fundada por D.R. Menéndez Pidal. Tomo II volumen I y II. Espasa Calpe. Madrid. 1982 berargitarapena.
- WÖLFEL, D.J. “Las religiones de la Europa preindoeuropea”, en *Cristo y las Religiones de la Tierra*. BAC, Madrid 1960.
- ZEPHYRUS VI 1955.

## LABURPENEA

Lan honen xedea Eslabako (Nafarroa) aldarean dagoen hitz bat euskeratik irakurtzen saiatzea da. Hitzak *Peremustae* da, eta testu honetan agertzen da: “*Peremustae Deo Magno Araca Marcella pro salute sua et suorum VSLM*”. Horretarako, bi elementutan banatu da teonimoa: alde batetik, *Pere* elementuan (behe, behere, behera, beheko mundua), eta, bestetik, *ust* edo *must* elementuan, gaurko *ost*, *ust*, *urtz* eta *urcia* elementuekin lotu daitekeena (jainkoa, Aimery Picaud-en kronikan). Bukaerako –a gaurko euskal determinatzailea legez hartu daiteke. Horren guztiaren arabera, teonimoaren esanahia honako hau izango litzateke “beheko munduko jainkoa”

## RESUMEN

La presente comunicación intenta la lectura desde el Euskara del teónimo que aparece en el ara de Eslava (Navarra) dentro del texto “*Peremustae Deo Magno Araca Marcella pro salute sua et suorum V S L M*”. Se ha descompuesto el teónimo en los elementos PERE (bere, behere) “bajo”, “mundo inferior”, UST o MUST relacionable con el actual *ost*, *ust*, *urtz* y *urcia*, “dios” en la crónica de Aimery Picaud. La -A final puede entenderse como el determinante vasco actual. Según esto el contenido semántico del teónimo sería “el dios del mundo inferior”.

## RÉSUMÉ

Ce travail-ci essaie d’interpréter à partir du basque le terme qui apparaît dans le texte “*Peremustae deo Magno Araca Marcella pro salute sua et suorum V S L M*” gravé sur l’autel d’Eslava (Navarre). Le théonème a été décomposé dans les éléments *Pere* (*bere*, *behere*) “bas”, “monde inférieur”; *ust* ou *must*, que l’on peut rattacher avec l’actuel *ost*, *ust*, *urtz* et *urcia* “dieu” dans la chronique d’Aimery Picaud. Le -a final peut être interprété comme le déterminant basque actuel. D’après cela, le contenu sémantique du théonème serait “le dieux du monde inférieur”.

ABSTRACT

This article attempts to interpret in Basque the term which appears on the altar stone of Eslava (Navarra) within the text "*Peremustae Deo Magno Araca Marcella pro salute sua et suorum V.S.L.M.*" The theonym has been broken down into the elements *Pere* (*bere, behere*) "low", "inferior world"; *ust* or *must* which may be related to the current *ost, ust, urtz* and *urcia* "God" in Aimery Picaud's chronicle. The final *-a* can be understood as the current Basque determiner. According to this, the semantic content of the theonym would be "The God of the inferior world".